

Enbata

HEBDOMADAIRE
POLITIQUE BASQUE
23 octobre 2008
N° 2050
1,22 €

Rapprochement
PNV-PSOE

**Iparraldeko
lehen
bertsolari
xapelketa**

ISSN 0294-4596



917702941459006



Le coq

HYMNE national sifflé au Stade de France et voilà la France outragée qui s'indigne. On suspendra le match si ça recommence, a dit le Président de la République! «Il y a 30 ans, quand je jouais avec l'équipe de France, la Marseillaise était sifflée sur tous les terrains. Mais à l'époque, les politiques ne s'intéressaient pas au football et ça ne choquait personne», réplique Michel Platini, ancienne gloire du ballon rond, actuel président de l'Union européenne de Football, qui dénonce la récupération politique. Quel décalage entre cet affichage exacerbé, des dirigeants de la France d'aujourd'hui, mis à défendre les symboles nationaux et, par ailleurs, le mépris dans lequel ils maintiennent «leur» Pays Basque! Nous ne sommes même plus sous tutelle, nous sommes dans la non-existence. Le territoire basque n'est que virtuel et juste bon à occuper les travaux des Conseils de développement ou des élus. La langue basque est récemment un peu mieux lotie avec son entrée dans la Constitution et sa gestion partielle par un Office public. Mais de ses droits, il n'est nulle part question. Au pays des droits de l'Homme, le seul droit du Peuple basque est de ne pas être interdit. Mis à part une classe dirigeante parfaitement éclairée sur les droits collectifs partout reconnus en Europe dont sont exclus les Basques, il faut bien reconnaître que l'ensemble de l'opinion publique française ne trouvera rien à redire sur le statut de non-reconnaissance des Basques. Aucune agressivité, aucune politique négationniste affichée envers le Peuple basque mais une douce acceptation générale du nivellement égalitariste des citoyens de Dunkerque à Biriato. Ceux qui militent pour la promotion institutionnelle singulière des Basques, même par des moyens exclusivement pacifiques, passent pour de sympathiques utopistes incapables de mesurer le grand honneur et l'immense avantage de partager le destin français. Hymne et symboles basques n'ont pas leurs Arcs de Triomphe et leurs Palais de la République. Ils sont juste à leur place sur les boîtes de gâteaux (basques), les Dantzari Eguna et, depuis peu, dans les stades de rugby. Là, on s'en revendique et on y assoit notre identité locale. Ça peut être même un petit atout dans une société de plus en plus anonyme, sans relief et sans racines.

Doit-on s'offusquer de tant de distorsions entre le patriotisme chatouilleux de la masse des Français et notre statut de peuple inférieur? Notre ambition collective serait-elle l'égalité avec celle de l'Etat tutélaire? Ne faut-il pas plutôt tirer satisfaction de moins de patriotisme arrogant mais de plus d'engagement sur les valeurs universelles de solidarité et de respect de l'autre dans sa différence? Notre patriotisme basque s'épanouit heureusement hors du clinquant de drapeaux revanchards et dominateurs ou d'hymnes aux relents racistes qu'un peuple normalement civilisé aurait dû effacer dès sa sortie de la Révolution de 1789.

*
* *

Quel sort nouveau nous réserve cette France cocardière? Le tourbillon de réformes, que le Sarkozysme n'entend nullement relâcher malgré la crise financière, devrait redessiner la carte des collectivités territoriales. L'empilement des échelons de gestion perdrait une ou deux strates. Nous irions par le biais d'une habile loi électorale vers la fusion des départements et de régions ainsi que des communes et des intercommunalités. Edouard Balladur, qui a déjà bien servi la révision constitutionnelle, est missionné à la tête d'une commission pour organiser le sacrilège des découpages républicains. De nouveaux cantons, à l'échelle de trois ou quatre par arrondissement, deviendraient des circonscriptions communes à l'élection des conseillers généraux et régionaux. Pour nous, dans ce panorama, la seule question qui vaille est: la territorialité basque sera-t-elle respectée? Il est à craindre qu'une partie d'Iparralde ne serve d'appoint à des cantons du sud des Landes ou de l'ouest du Béarn à l'image de l'actuelle 4^{ème} circonscription législative basco-béarnaise découpée par le scalpel de Charles Pasqua.

Ce nouveau charcutage électoral pourrait, il est vrai, tout aussi bien renforcer la représentation basque en permettant, grâce à un scrutin uninominal par canton, d'envoyer un abertzale au Conseil régional, exercice jusqu'ici impossible. Pour accoucher de cette réforme, les élections régionales seraient reportées d'un an. Mettons ce temps à profit pour préparer l'abertzalisme à cette éventualité.

Txistuen afera...

ZE astakeria! Munduko kutxa guziak lehertzen ari direla eta, Frantzian beste herri batek hartu du lehentasuna zenbait egunez. Atentatu batek inarrosi baititu Estatuaren oinarriak: terrorista batzuk frantses sinbolo bati oldartu zaizkio, futbol zelai baten erdian. Zer afera! Arma edo lehergailu gisa, txistuak dira erabiliak izan. Terroristak? Paris hiri inguruko gazte andana bat. Jomuga? Frantses airea, «Marseillaise» nazionala. Ezin sinetsia! Bai errealki, ezin sinetsia ikustea zer bilakatu den «Stade de France-eko» txistuen afera. Lau edo bost frantses ministroek jakinarazi dute beren haserrea. Lehen Ministroak berak jakinarazi du zein ezin onargarriak ziren holako egin moldeak. Sarkozy berak «en personne» konbokatu ditu kiroletaz arduratzen diren ministroak eta futbol federazioaren lehendakaria. Zer ez da entzun: «Ez zela gehiago Maroka, Algeria edo Tuniaren kontra jokatu behar», edo orokorki «Magrebeko herrien kontrako futbol partidak ez zirela Frantzian egiten ahalko»; beste batzuek ziotelarik «txistulariak beren etorki herrira itzularazi behar zirela». Esaldi horiek entzutean, hobeki ulertzen ahal da nun kokatzen diren arazoaren erroak. Jende gutti izan baita galdegiteko zergatik edo nori eskainiak ziren txistu horiek. Jende gutti ulertu nahi izan baitu zergatik holako gertakariak ikusten ahal ziren kirol zelai batetan. Alta, txistu horiek zerbait erran nahi dute naski. Kirolean, jokalarik bat txistukatua delarik, gaizki jokatu duelako, edo ukaldi gaizto

baten ondoren, nehork ez ditu salatzen txistuak. Frantses sinbolo bati egin txistuak, gizon ala emazte bati eginak baino gehiago lirateke? Txistuak jokoaren parte bat bezala hartuak dira, ez beti hain sanoak, ez beti ulergarriak (larunbatean bezala), baina kirol munduko gauza normala bat. Nork ez ditu entzun txistuak kirol zelai batetan, Jean Dauge-n, Miarritze aipatua delarik eta Agilerran, Baionaren emaitza onak entzuna direlarik, zezen plaza batetan, politika «meeting» edo bilkura batetan (eta hor usu probokatuak dira), bertsolari lehiaketa batetan. Xalbador bera txistuak entzun eta Euskal Herriko txapeldun ateratu zen, txistulariei ere bere maitasuna adierazi ondoan. Ez da holakorik Frantziako buruzagien pentsamoldean. Kiroletik urrundu gira. Kiroletik urrundu nahi ukan dute. Politikan sartzeko. Duela urte bat Frantzia eta Marokaren arteko futbol partida batetan, leku berean, «Stade de France» berean, txistuak entzun ziren ere. Baina gertakari horrek ez zuen holako erreakziorik sortu. Eta txistuak, matxeko gertakari bat gelditu ziren. Zenbait hilabete berantago, gertakari bera, baina erreakzio desberdina. Demagogia hutsa. Beste gai batzuk ez aipatzeko, egoera orokora ezeztatzeko eta ere berdin, zergatik ez, eskuin muturreko sektore bati keinu bat eskaintzeko. Txistuak merezi dituen egin moldea. Gau hartan frantses futbolariak irabazi zuten. Eta batzuek, nahi edo ez, txistuen bitartez zozokeri edo probokazio lehiaketa bat antolatu nahi izan badute, Frantziak du irabazi.

... et réjouit du désaveu infligé par la Chambre des Lords au premier ministre travailliste Gordon Brown qui voulait passer la garde à vue policière pour les suspects de terrorisme de 28 jours sans contrôle judiciaire à 42 jours. En Angleterre les travaillistes roulent à gauche mais conduisent à droite!

... que le budget de l'Elysée poursuive son dérapage avec une hausse de 10% encore cette année. En cause: les virées présidentielles et les augmentations de 11% cette année (après les 26,8% de l'année dernière) d'une centaine de collaborateurs proches du prince. Sarkozy, un président qui a du coffre.

... pas tant que ça que siffler la Marseillaise d'avant-match de foot soit devenu une habitude au Stade de France. Tartaro pensait que cet hymne raciste et sanguinaire se chantait, il sait maintenant qu'en fait il peut aussi se siffler.

... et réjouit que le tribunal administratif de Bordeaux ait condamné l'Etat français à payer aux anciens combattants marocains de la 2^{ème} guerre mondiale et des guerres coloniales le même montant de pension qu'aux Français, soit dix fois la somme qui leur était jusqu'à présent versée. Au ministère on est déçu: «Là où il y a de l'indigène, il n'y a pas de plaisir».

... que le Vatican, sourd aux appels des fidèles et du clergé basques pour la nomination d'un évêque bascophone, ait désigné Marc Aillet, vicaire général du diocèse de Toulon-Fréjus, et membre de la très traditionaliste Communauté St Martin, pour occuper le siège épiscopal de Bayonne. Après Mgr Molères, à croire que le Vatican a une dent contre les Basques!

... et étonné que dans sa première déclaration le nouveau pasteur ait souligné qu'il n'était pas doué pour les langues. Sans vouloir chercher des crosses à un évêque, Tartaro a cru comprendre qu'il n'avait aucune intention d'apprendre l'euskara.

... et attristé qu'aux obseques d'Iratzedier à Belloc, à l'exception des chants basques somptueusement interprétés par les moines, pas un mot de basque n'ait été prononcé au cours de la cérémonie. Aïta Xabier, qui a tant donné à l'église et à l'euskara, méritait mieux de sa communauté et de son successeur donibandar. Mais à Belloc on parle chrétien!

ON connaissait déjà David Habib, le député-maire PS de Mourenx, pour ses sentiments si sympathiques envers le Pays Basque et ses habitants. Jean-Michel Galant avait pu les apprécier lors de son entrée en fonction au Parlement de Navarre en 2001, lui qui avait reçu la bienvenue de l'élu béarnais comme un villageois vietnamien le napalm des bombardiers américains.



Pourquoi tant de haine?

Mais si à l'époque Habib avait placé le curseur sur le terrain somme toute politique —et donc a priori légitime— de l'existence de la violence au Pays Basque, voici qu'aujourd'hui il refait parler de lui sur un registre beaucoup plus douteux. Le 11 octobre dernier, alors qu'il parcourait les travées du Salon du livre d'Orthez en compagnie de son adjoint à la culture, ce dernier lui fit remarquer la forte présence d'auteurs basques sur les stands, et s'amusa du «risque» qu'ils puissent arriver un jour jusqu'à Mourenx. Et son philanthrope de maire de répondre: «Après l'épuisement du gisement de gaz, faudra-t-il se méfier d'une deuxième péril?». Pouvant penser qu'il pût s'agir d'une pointe d'humour, ce qui dans la bouche d'un autre aurait effectivement pu me faire sourire moi-même, deux élus basques lui demandèrent de s'expliquer; et Habib, loin de chercher à calmer les esprits, répondit: «Ce n'était même pas un trait d'humour de ma part (...); c'est simplement pour eux l'occasion de nous rappeler qu'ils sont là pour défendre le Pays Basque par rapport au Béarn».

Ainsi donc, notre sémillant édile ne voit dans le désir pour un auteur

Peio Etcheverry-Ainchart

d'écrire dans sa langue, et par extension dans celui d'un peuple de parler sa langue, que la volonté de s'opposer à son voisin. Mais alors que faut-il penser de sa propre volonté de parler français? Doit-on considérer qu'il ne cherche qu'à «défendre la France par rapport à ses voisins européens»? Quelle bizarre équation peut donc bien faire que selon que l'on choisit de parler le basque ou le français, l'on devient respectivement symbole de repli sur soi ou au contraire d'universalisme? Il ne me semble pas que quelque évangile, table de la loi ou constitution universelle ait jamais établi un classement des langues, distinguant celles qui font de leurs locuteurs des gens bien et celles qui en font des communautaristes... Il faudra un jour expliquer à notre ami Habib que certes, parler la langue basque revient à défendre une certaine vision du Pays Basque, celle d'un peuple qui ne veut pas voir disparaître sa langue car celle-ci est sa principale contribution au patrimoine culturel de l'humanité; mais que cela ne revient en aucune manière à s'opposer à quiconque.

Du droit à la différence au droit à l'égalité

Ce genre d'événement ne serait à mes yeux qu'un épiphénomène s'il ne traduisait pas la preuve d'un énorme malentendu qui existe encore entre les Basques —et par extension tous les gens qui défendent une langue minoritaire— et ceux qui ont la chance de voir leur langue reconnue par la Loi. Le débat sur les droits linguistiques ayant toujours été lié, au Pays Basque, à la problématique plus large de la souveraineté politique de ce dernier, on a fini par oublier ce que signifie le principe de (co-)officialisation. Il ne s'agit pas de «défendre par rapport» ou «contre», ni d'élever des différences culturelles ou linguistiques en barrières. Il s'agit seulement de reconnaître qu'il est injuste de vouloir considérer que certaines langues ont moins de droits légaux que d'autres, et par conséquent de réclamer que les mêmes droits soient garantis pour toutes, dans le respect mutuel et en totale égalité. Que quelqu'un qui veut parler français ou espagnol en Pays Basque puisse le faire, et que quelqu'un qui veut parler basque le puisse aussi. Et ce partout où cela le chante: en famille, au travail, devant les admi-


nistrations, dans tous les services publics... Quoi de plus normal, quoi de plus tolérant de soi et de l'autre, surtout quand il s'agit de langage, c'est-à-dire d'un vecteur de communication que n'importe qui peut choisir d'apprendre et d'échanger? Ce malentendu, il n'est pas encore dissipé. Certains, comme David Habib, feindront toujours de ne pas l'avoir compris car ils sont engoncés dans leur sentiment de supériorité cocardière et de peur du repli français face à l'hégémonie anglaise. C'est tellement facile, quand on se sent faible, de se retourner sur plus faible que soi, surtout quand on détient l'arme de la Loi. Mais beaucoup souffrent d'abord d'un manque d'information, et c'est à nous de porter ce message positif, ouvert et intégrateur. À cet égard on a encore beaucoup de travail à faire.

Être soi-même exemplaire

C'est curieux mais quelques jours à peine avant que je ne lise dans la presse l'édifiant anecdote concernant Habib, j'avais moi-même vécu une histoire un peu similaire. Ne recevant pas de réponse aux mails que j'avais envoyés à un militant basque que je ne connaissais pas, j'avais fini par apprendre qu'il avait jeté tous mes messages sans les lire, pensant que j'appartenais à un parti abertzale qu'il n'appréciait visiblement pas. Quand il a finalement appris que j'étais d'AB, il s'est confondu en excuses. Au-delà de ma satisfaction devant la cote d'amour d'AB, je me suis quand même dit: «Si déjà on commence à refuser ne serait-ce que de communiquer parce qu'on n'est pas du même parti abertzale, quel genre de Pays Basque s'apprête-t-on à construire avec les autres, et quelle conception a-t-on de la pluralité de la société de ce pays?» Quand on réclame le respect de ce qu'on est et de nos droits, encore faut-il qu'on reconnaisse ce que sont les autres et leurs propres droits! C'est pourquoi je laisse Habib à ses âneries, en lui conseillant d'essayer de dire des Arabes ou des noirs ce qu'il dit des Basques «arrivant jusqu'à Mourenx», et de voir s'il n'aurait pas ainsi l'impression de tomber dans le registre du Front National. Ça le fera peut-être réfléchir. Par contre je m'inquiète davantage de ce que nous, abertzale, prenions garde à ne pas nous égarer nous-mêmes, la confrontation politique face aux États français et espagnol ne faisant pas des Français et des Espagnols eux-mêmes des ennemis.

Lehen Bertsolari Xapelketa

«Gure burua ispiluairen aurrean emateko tenorea dela pentsatu dugu».
 «Nous pensons qu'il est temps pour nous de nous mettre devant un miroir».
Iparralde vit un moment qui fera date en ces mois d'octobre et novembre: la tenue de son premier Bertsolari Xapelketa. Organisé par Bertsolarien Lagunak qui œuvre depuis des décennies pour la promotion du bertsolarisme en Iparralde, ce premier concours met en compétition seize bertsolari de Lapurdi, Baxe Nabarre et Xibero. Derrière le bertsolari confirmé qu'est Mixel Aire Xalbador, la sélection regroupe quinze jeunes talents, issus des bertso eskola. La plupart d'entre eux ont été scolarisés en ikastola. C'est tout le paradoxe d'Iparralde où la pratique de l'euskara cède du terrain et où le bertsolarisme, qui exige une maîtrise exceptionnelle de la langue, n'a jamais autant prospéré. Témoin du renouveau et porteur d'espoir, Bertsolari Xapelketa écrit une nouvelle page dans l'histoire culturelle de notre pays. Le public ne s'y est pas trompé, qui a assisté en nombre à la première manche samedi dernier à Garazi. Kexux Arzallus, bertsolari, président de Bertsolarien Lagunak et formateur infatigable, nous livre ses réflexions.



Kexux Arzallus

ENBATA: *Iparraldeko lehen bertso xapelketa honentzat, «Tenorea» aukeratu duzue lema gisa. Zertan da aurten iparraldeko bertsolaritzaren tenorea?*

Kexux Arzallus: Bada Xalbadorren bertso bat bukaeran erraten duena «*Jurrik hoberenak ere badu bere lana*». Tenorea lema hautatu dugun mementoan, bertso hau etorri zait gogora; urteetan elkarte egituratzen, bertso eskoletan eta bertso-gintzan egin den lanaren ondotik, gure burua ispiluairen aurrean emateko tenorea dela pentsatu dugu.

Enb.: Bertso Eskolak ezinbesteko tresnak bilakatu dira bertsolaritzarentzat?

K. A.: Baitezpada baietz erran behar dut, eta hasiko naiz iparraldeko bertsolaritzaren bi izar handienak aipatzen berriz ere. Mattinek (Mattin Treku, Ahetze 1916-1981) badu bertso bat dioena: «*kontsolamendu hunekin partituko naiz mundutik, xahar batentzat hamabortz gazte heldu direla ondotik*». Eta justu gure txapelketa hamabost gaztek eta Xalbadorrek (Mixel Aire) parte hartzen baitute. Hamabost gazteak bertso eskoletan haziak dira eta Xalbador zaharra dela erran gabe ere, bere gisara, bertso eskolatik pasa dela erran genezake bertsoarekin izan duen harremanagatik, Xalbador handiaren (Fernando Aire, Urepele 1920-1976) semea delako, eta beti berak bertsoarekiko agertu duen interes eta maitasunagatik. Etxe giro hori, eta ostatueta behiala bizi zena ere bertsoaren eskola bat zen funtsean. Eta egun, ez dugu konprenitzen bertso eskolarik gabe zer izanen zen egun bertsolaritza.

Enb.: Euskararen egoera ikusirik, bertsoak paper bat joko dezake?

K. A.: Nahi genuke bederen joko dezan.

BERTSOLARIEN Lagunak elkarteak 1980an sortu zuen bertsolari ta bertsozale talde batek. Bertso eskolak jarraitzen ditu, elkarte ainitzetan bezala lan profesionala ta bolondresa uztartuz. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari loturik da Nafarroako, Gi-

Justu euskara lan tresna harturik irakaskuntzan jende heldua alfabetatzen, komunikabideetan urte guzian borrokan madarikatzen ari direnei hats berri bat ematea ere paper bat jokatzeko baita. Eta hori da hain justu nahi genukeena, ikus dezaten langile porrokatu horiek guttienez, berek egindako lanak zerbaitearako balio duela, eta egun batean bederen goza dezaten bertso saio bat entzunez. Gure hizkuntzak lan handiak galdegiten baititu, eta indar horiek egiteko gozamenak ere beharrezkoak ditugu. Eta bertalde baitaezpadakoa da bertsoa erne dadin hizkuntza bizi den lur batean, Maradonak ere ez baitzuen golik sartzen baloink gabe.

Enb.: Belaunaldi gaztea da datorrena



indartsu bertsolarien artean. Bertsozalego berri baten iturri izan daitekena?

K. A.: Daitekeena baino ziurtasun gehiagorekin ere nahi genuke baietz erratea. Belaunaldi gaztea delako entzule izan daiteken gazte horien bizitza baldintza, inguru, molde beretan bizi dena, eta entzuleak bere arregurak sentitu behar ditu bertsoetan islatuak. Arregura batzuk badira belaunaldi guzietan konpartitzen dituz-

tenak, eta herri hunetan bizi izanik are gehiago, baina badira bertze arregura eta kode batzuk belaunaldi bakoitzak bereak dituenak, eta komunikazio horretan bizi da bertsolaria eta bizi du bertsozaleak.

Enb.: 16 bertsolarik parte hartzen du-te. Gehiago izan zitezkeen?

K. A.: Guttiago ere bai. Eta kopuru ona dela uste dugu abiatzeko eta kontent gara. Kopuruari beha garenez, uste dugu heldu den txapelketa gehiago izaten ahal direla, badirelako hamalau, hamabost, hamasei urterekin bertso eskolan ari direnak, eta hortik labekada berri bat helduko da. Hala ere, bertsozaleak bertsolari bezala ikusten dituzk eskas dira txapelketa, hori da justu Xalbador

eta Mattinen ondoko belaunaldia. Prentsaurrekoan erran bezala klima bere aurka izan duen belaunaldia. Hala ere klima aurka delarik ikasten baita nola iraun, belaunaldi horrek sortu zuen Bertsolarien Lagunak elkarte. Ez ditut izenak erranen, bakoitzak egin baitu berea eta eskertzekoa da zinez horien lana. Eta txapelketa batean bertsoaren zaleen aitzinean zutik emateko behar da bertsoetan



Maddalen Arzallus, Kristiñe

Garaziko sailkapena

1 - Maddalen Arzallus 336.5; 2 - Sustrai Kolina 336.5; 3 - Kristiñe Txoperena 327; 4 - Xumai Murua 308; 5 - Gillen Hiribarren 287.5; 6 - Xan Alkhat 270.5

Sorpresa txikia ekarri zigun lehen kanporaketak. Lehen atera diren bi bertsolariek puntuazio berarekin atera baitira saioaren bukaeran, 336.5 punduna Maddalen eta Sustrairentzat. Abiatu da beraz Ipar Euskal Herriko historiako lehen txapelketa. Abiatu eta ederki abiatu, Donibane Garaziko Vauban Zinegelan. 200bat lagunek berotu zuten bertsoetara guti ohitua den aretoa. Baxe Nabarreko entzule belharri erneak gozatu ahal izan zituen Iparraldeko bertso eskoletako umeen lanak. Saikatu diren lehen 2 finalistak Maddalen Arzallus eta Sustrai Kolina izango dira beraz, azaroaren 15ean Donibane Lohitzuneko Jai Alaien agertuko direnak. Kristiñe Txoperenak 3garren bukatuz Urdiñarbeko kanporaketan kantatzeko aukera izango du berriro.

Julen Zabalo, UPV-EHUko Soziologia Saileko irakaslea

Nahia alde, testuingurua aurka

“Euskal Herria eta Espainia edo Frantziaren arteko gatazka egon badago eta prozesu zibilak ez luke hori leunduko”



“Geroagoko zehaztapenetan sartu aurretik (nolako prozesua, nork osatua, zer ekimen zehatzen inguruan...), beharrezkoago ikusten dut burujabetzaren aldeko prozesu zibila abian jartzearen kontrako testuingurua aztertzea”

Voici la contribution de Julen Zabalo, professeur de sociologie, à l'Université du Pays Basque à la série d'articles ou de réflexions qu'*Alda!* a publiés depuis fin juillet sur les Processus souverainistes civils. De l'importance fondamentale de la conjoncture au Pays Basque.

Burujabetzaren aldeko prozesu zibil bat abian ipintzea burujabetza hori desiatzen dugun guztiontzat pozgarria izango litzateke, zer esanik ez. Egia esan, hain berri ona izanda, galdetu behar da zer dela eta oraindik ez den abian jarri. Ez da izango, pentsa daitekeenez, ez delako nahi, baizik eta testuingurua kontrako duelako. Beraz, geroagoko zehaztapenetan sartu aurretik (nolako prozesua, nork osatua, zer ekimen zehatzen inguruan...), beharrezkoago ikusten dut testuinguru hori aztertzea.

Noski, hori azaltzeak luze joko luke, eta batez ere, oso eztabaidagarria da, norberaren balorazio pertsonaletan sartzen baikara. Hemen, hortaz, nire iritzia emango dut, Hego Euskal Herriko egoerara egokিতuta gehienetan.

Hona testuingu horretan modu negatibotan jokaten duten ezaugarrietako batzuk.

Alderdi politikoei baldintzatua

Burujabetzaren aldeko prozesu zibila modu askotan uler daiteke. Batzuek alderdien agintetik at irudikatzen dute, edo desobediencia zibil militanteari loturik, eta abar. Formula guztiak onargarri izan daitezke, baina errealitateak esaten digu gaur Euskal Herrian alderdi abertzaleek eragin nabarmena dutela herritarrengan, eta alderantziz, herritarrek leialtasun handia gordetzen dietela alderdiei. Gizarte mugimenduren bat sortzea, alderdien

oniritzirik gabe, nolabait beste '*alderdi*' bat sortzea izango litzateke, eta horrek herritarren leialtasun politikoarekin egin lezake topo. Posible litzateke, hortaz, alderdiek babestutako prozesu zibil bat abian jartzea? Gaur eguneko perspektibatik horrela planteatu beharko litzateke, baina oraingo egoera ikusirik, nekez irudika daiteke halako ekimen bat.

ETArekiko jarrerak baldintzatua / Espainiarekiko jarrerak baldintzatua

Alderdien arteko adostasun falta normala da, alde batera, bakoitzak interes propioak zaintzen baititu, baina publikoki bi gai dira desadostasunaren zio nagusitzat jotzen direnak, norabide desberdinetan.

Alde batetik, ETA. ETA edozein aurrerapauso egiteko oztopotzat jotzen du batek baino gehiagok, eta bere desagertpena ezinbestekotzat aurrera egiteko.



Julen Zabalo

Batzuek ETA 'ordezkatzeko' helburu dute, eta beste zenbait uste du ezina dela ezer aurrera ateratzea ETAn indarrean

dagoela, bere jarduerak espainiar estatua- ren jarrera baldintzatzen baitu, eta honentzat, mugimendu berria ETAre- n esferapean kokatzeko tentazioa izatea logikoena izan daitekeelako. Halakoetan ez jausteko, mugimenduak ETAre- n arbuio argia egin beharko luke, baina horrek, zer esanik ez, ezker abertzaleko militante kopuru esanguratsua galaraziko lioke.

Beste aldetik, Espainiarekin mantendu beharreko jarrera ere eztabaida iturri da. Izan ere, burujabetzaren aldeko prozesu batek tirabirak sortuko lituzke Espainiarekin, eta ez litzateke ulertuko estatuaren erasoak jasotzea eta, aldi berean, estatuarekin lankidetzat itunak egiten ibiltzea.

Ezker Abertzalearen ilegalizazioak baldintzatua

Are gutxiago uler daiteke Espainiarekiko lankidetzat giroa gaur egun Ezker Abertzalearen kontra garatzen ari den errepresio aro berriaren ostean. Ilegalizazioak eta ilegalizazioaren mamuak jipoitu egiten du, behin eta berriro, Ezker Abertzalea eta, halako giroan, agian desobedientziarako deiak proposatzea, baina gero, Espainiako legeriarekin bat etortzea ez da aurrekari ona lankidetzarako

Euskal herritarren zatiketa politikoak baldintzatua

Norentzat prozesua? Azken emaitza herri osoarentzat edo herritar guztientzat

izango da, noski, baina norekin abiatu behar da prozesua, eta zer jende egongo da mugimenduari eusten eta prozesuaren bizkarrezurra osatzen? Subiranotasuna tartean dela, sentsibilitate abertzalea duen jendeari egingo zaio dei, gehienbat. Horrek sentsibilitate espainiar eta frantziarra dutenen herritarren aurkakotasuna ekarriko du, halabeharrez. Lizarra-Garazin gertatu zen bezala, komunitateen (gaizki erabilitako terminoa) mamua haiza liteke, baina indar handiagoz oraindik.

Sentsibilitate abertzaleko jendea esatea, berriz, ez da gehiegi zehaztea. Horren barruan, bestelako sentsibilitate desberdinak dituen jendea dago, eta horiek batzea izango litzateke erronka. Benetan lan zaila, oso ikuspuntu desberdinak batu beharko liratekeelako. Ezinbestekoa izango litzateke, hortaz, ikuspuntu desberdin horiez jakitun, planteamendu zabala egitea, aurrebaldintza gutxikoa.

Zailtasunak zailtasun, subiranotasunaren aldeko mugimendu batek izaera abertzale izaera edukiko luke, halabeharrez, eta Espainiak herritarren arteko zatiketa areagotzea leporatuko lioke. Eta 'leporatu' kasu honetan, maila desberdineko eraso ere esan nahi du. Azken batean, *nazioen arteko talka* gertatuko litzateke: euskal nazioa eta espainiar edo frantziarren artekoa.

Ideologia nazionalistak baldintzatua

Burujabetza politikoa lortzea arrazoi bat baino gehiagorengatik desia daiteke, baina normalean gaur egun, eta hala gertatzen da Euskal Herrian, ideologikoki nazionalismo batek sustatutako helburua izaten da. Horrek esan nahi du, burujabetza lortzekotan, edo herritar gehienak bihurtu direla helburu hori duen nazionalismoaren kide, edo bestela, nazionalismo horrek aldarrikatzen duen burujabetzaren

abantailek herritar gehienak konbentzitu dituztela. Mekanismoa sinplea da, baina nazionalismo batek jarduten duenean, gehienetan beste nazionalismo bat dago parez-pare, eta hori ere, hala gertatzen da Euskal Herrian (bi baino, hiru nazionalismo ageri dira, gainera).

Aurrez aurre dugun nazionalismo horren osasunak bidea erraztu edo zaildu egingo digu, eta badirudi espainiar eta frantziar nazionalismoak osasuntsu daudela momentu honetan. Pentsa dezakegu, hortaz, burujabetzaren aldeko edozein prozesu erabateko aurkakotasuna jasoko duela nazionalismo horiengandik, are handiagoa eta ikaragarriagoa estatuaren botere guztia erabil dezaketela jakinik.

Gatazka giroak baldintzatua

Prozesu zibila diogunean, ematen du gehiegi nekatu gabe, giro alaian eta Espainiaren edo Frantziaren jarrerarik abegikorrenean garatuko dela prozesu hori, gatazka bakarria ETArri loturikoa delakoan. Apur bat hausnartuz gero, erraz konturatzen gara gatazka politikoa burujabetza prozesuaren indarraren arabera doala, prozesua armatua edo zibila izanda, tartean nazionalismo batzuen arteko konfrontazioa ageri baita.

Beraz, Euskal Herria eta Espainia edo Frantziaren arteko gatazka egon badago momentu honetan, eta prozesu zibilak ez luke hori leunduko. Are gehiago, gatazka maila handitu egingo litzateke prozesu horrek arrakasta lortzekotan. Prozesu honetan parte hartuko luketen herritarrek egoera tirabiratsu batera heldu behar dela jakin beharko lukete, eta halako egoerak gogorrek eta mingarriak izaten direla denentzat.



"Ilegalizazioak eta ilegalizazioaren mamuak jipoitu egiten du, behin eta berriro, Ezker Abertzalea eta, halako giroan, agian desobedientziarako deiak proposatzea, baina gero, Espainiako legeriarekin bat etortzea ez da aurrekari ona lankidetzarako."

Krisia, haurrer esplikatia!

Ztarras Ringarria

Hasiera batean Lütztürü-les-Bains-en taberna duen Zintzurluze anderea bada.

Bere saltzeen emendatzeko, dituen bezero zintzo eta leialer - denak alkoholikoak ta kasik denak luzaroan langabezian - kreditu emaita erabakitzen du.

Kredituarekin saltzen duenez, Zintzurluze andereak bere tabernarekin sekulako arrakasta biltzen du, eta gainera, bere "baso" ta "katxi"en oinarrizko prezioak pixka bat emendatzen ahal ditu.

Tokiko banku agentziaren zuzendari gazte eta dinamikoak pentsatzen du azken finean tabernari zor zaizkion zorrak (latinez "ardoise"ak), ororen buru, kobratzeko moduan diren aktibo batzu direla, eta beraz Zintzurluze andeari kreditoa egiten dio, mozkorti batzuen zorrak dituelarik garrantia bezala.

Bankuaren egoitza sozialan, finantza merkatuetako artekari erne batzuk, kobratzeko moduan diren aktibo horiek eraldatzen dituzte CDO, CMO, SICAV, SAMU, OVNI, SOS eta beste finantza sigla batzutan... Bata bestea bezain ezin ulertuzkoak...

Finantza instrumento horiek ondotik akziodunen merkaturak palanka moduan erabiliak dira eta NYSEn, Londreseko City-n, Frankfort eta Pariseko Boltsetan, etab. deribatu operazio batzutarra eramaiten dute... denetarik ezezagunak diren garrantiekin (hots Zintzurluze anderearen tabernako mozkortien zorrak).

"Deribatu" horiek negoziatuak dira urteetan zehar titulu indartsu eta serio-sak balira bezala 80 herrietako finantza merkatuetan...

Egun batez, norbait konturatzen da Lütztürü-les-Bains-ko tabernako alkoholikoek ez dutela sos pilik beren zorren ordaintzeko...

Zintzurluze anderearen edaritegiak porrot egiten du.

Eta mundu osoa izorratua da!



ELA

Langile ekin

Iparraldea

Emaitzek berretsi duten estrategia

Azaroaren 26 eta 27an Bilbon, iraganen den ELA sindikatuaren XII. kongresuaren karietara, argitaratzen ditugu hemen 750 kongresu kideen botzei aurkeztua izanen den ponentzia edo orientazio txostenaren pasarte batzu. Pasarte hauek Iparraldeari buruzkoak dira. Orientazio txostena osotasunean eskuragarri da Manu Robles-Arangiz Fundazioan edo ELA sindikatuaren web gunean (www.ela-sindikatu.org)

Estatua ez da mugitzen

(...)

4.57 Alderantziz, esango genuke: itsu-itsuan egiten du bat Parisek Madrilgo errepresio-estrategiarekin eta haren joera antidemokratikoekin. Estatu espainiarrean askatasunen eta giza eskubideen aurka egiten ari diren urraketan antzekoak ari gara ikusten Estatu frantsesean ere. Horrez gain, Iparraldeko mugimendu sozialaren zati bat kriminalizatzen saiatu da Estatu frantsesa -EHLG, ELB, taberna abertzaleak, kontu-blokeoa...-

(...)

4.60 Estatu frantsesak bereari eusten dio, eta ez du aldatu nahi Konstituzioaren 2. artikuluko 1. paragrafoa: "*Frantsesa da Errepublikako hizkuntza*". Oztopo gaundiezina da jarrera hori alor horretan inongo aurrerapausorik emateko. Ondorioak: Frantziak ez du berretsi Europako Hizkuntza Erregional eta Gutxituen Gutuna, eta, batez ere, etengabeko ziurgabetasunean uzten ditu euskararen aldeko mugimendu militanteak eskuratu-tako lorpenak (ikastolak, komunikabideak...)

(...)

4.62 Gero eta nabarmenago ageri zaigun jokatibidea salatzen du Kongresu konfederal honek: egoera usteltzen uztea erabaki du Estatu frantsesak Ipar Euskal Herriaren erakundeei dagokienetz. Mitterrand, Jospin, Raffarin, Royal, Sarkozy..., denek itxi dituzte ateak, euskal gizartea nekatu, desmoralizatu eta, batez ere, desmobilizatuko delakoan.



En savoir plus sur le Pays Basque sud et le syndicat ELA.

Rencontres avec **Amaia Muñoa**, candidate au poste de Secrétaire Générale Adjointe du Syndicat ELA :

Bide beretik jarraitu

